

## **“DURANGOKO JESUITEN IKASTETXEA ETA EUSKAL KULTURA”**

*Gerediaga Elkarteak berrogeigarren aldiz Euskal Liburu eta Disko Azoka eratzen duen honetan, Durangoko Jesuitak euron 125. urteurrena betetzerakoan gerediagatarrokin batera euskalaritzara zerbait erakarri ote duten jakin nabiez eta euron presentziaren berri emango ote genukeen galdegin ziguten. Gure Jon Irazabalek: Abade eta praille kontuetan Antton Mari da iaioa eta hark egingo dizue goralpenen bat.*

*Ohore bat da niretzat honetan ekitea, baina buru makur eta apal naitortzue, ez baitakit zuek espero duzuen maila gaur eta hemen emango dudanik.*

*Dena den, gaurko hau bidean urrats bat ematea izan daiteke, agian, eta hala ere, ez dakit Jaime Badiola, Durango-Donostiako ikastetxeen Zuzendari Orokorra, Juanjo Moreno, Durangoko Josulagun-elkarte Buru eta Isabel Kapanaga, San Jose Ikastetxeko Zuzendariaren eta irakasle taldearen jakin mina aseko dudan eta entzule enparauok jakizue gogorik onenez eta bihotzez ekin diodala lantxo honi. Behar honi, bizkaieraz, baina beharra ere sentidu izan dut. Ekitaldiaren eta orduaren*

*mugak mozketak eragin dizkit nire gaurko hitzaldian, baina...*

*Abenduaren 10a, larunbata eta arrastiriko edo iluntzeko, hobeto esanda, 7retan hitzaldia! Hau da hau ekitaldia!*

Jaun andreok arratsaldeon!

Bene-benetan ur handietan murgiltzeko lana. Lan astuna, bihurria, polita, kontuz eta tentuz ibiltzekoa. Buruan nituen lau pasadizo dotoreziaz hornitu, beste lau izen entzutetsu zuen aurrean aipatu eta lagun giroan berriketan jarraitzea zelakoan, bada hemen zer esan, bada lanik lau tomo mardul osotzeko beste eta batik bat nire kautan itaun nagusi eta bakar bat, geroago sendoagoa, astunagoa: nor naiz ni kulturaren eta euskal kulturaren marra markatzeko, zehazteko, hainbat eta hainbat pertsonen sentiera eta inguruan sortarazi dituzten eraginak epaitzeko? Nor naiz ni halakoari euskaltzale karneta eskaintzeko, urliari ere bai baina beste hauei ez?

*“Zatozkida goi arnas  
ta egin nerekin lan  
Herri baten arnasa  
mamitu dezadan  
geroak esan beza  
Herri bat izan  
edo ta hats emaiogun  
hontan iraun dezan”*

*Nikolas Ormaetxea ORIXE*

Hasteko, Durangon eta jesuitak dauden inguruetan, *-jesuitak listoak dira, jakitunak-* vox populi dugu. Abade, fraide artean suaren gainetik ortozik erre barik eta ur gainean oinez dakiten bakarrak ohi dituzu. *Saben nadar y guardar la ropa*. Entzule hori, zure izena edo halango pasadizoren bat entzutekotan zaude hor, agian. Nire gaurko ahalegintxo honetan horretarako asmoa eta gogoia ekarri dizut eta poztuko nintzateke aurkeztu-

ko ditudan iruzkintxo edo esaldiren bateko ispiluan zeure burua keinu eginez agurtuko bazenu.

Badira beraz, eta dakigunez 125 urte jesuitak *gramatika* eta *latin* irakasten hasi zirela eta harrezkero gaurdaino halango haritxo mehe bat sumatzen dut, ikusezina baina era berean ibilbidea bateratzen duena, antzinako Teseoren gisan ehun eta piku urteko labiryntoan zehar ariadna-lokarria eten gabea. Ez daukagu Durangon josulagunen artean izen famaturik irakasle bez bere argitasunez euskal unibertsoan halango sona duenik. - Gasteizko Abadegeitegian Lekuona, Barandiaran...- Hemen-dik igandako ikaslecn artean aldiz bere sorreratik gaurko D ereduan ekite arte ez bakanak eta banaka, ez, erreskada opa-roa duzu. Durangaldean, Bizkaian eta Euskal Herrian zein kanpoan ere euskeraren anteojuarekin so eginez eraginik izan duenik bada!

1880an lehenengotako ikaslea izan genuen Florentino Elosu-renean argitaratu ziren Auñamendiko Lorea, Garoa eta bertoko zenbait debozionario ta bertso paper.

Hasierako urte hauetan Aita Jose Inazio Arana, azkoitiar josulaguna, Durangon dugu, gaixoen laguntzaile, emakumeen kofradia berri bat sortzeko asmotan eta bertoko euskaltzaleekin harremanetan duguna... *bobeto esan, Iurretara bestetan baino gehiago, San Migelak aurki baitira Iurretako Orozketan. Hiru egun lehenago "atsaldean D. Balbinorekin Orozketan barrio Yurretakora. Hain Elizako atalberako izkirak gaizki izkiratuak"..... San Migelen kantak eta dantzak entseatzen gazteekin festa aurreko egunetan, eta eguna, 29a, larunbata, iristean hauxe bakarrik esaten digu: "S . Migel pesta Yurretan"..... (234 orria),...D<sup>a</sup> Leona Oruek.... egun berean suertatu zen, Don Resurreccion M<sup>a</sup> de Azkue, "apaiz maisua", Durangora Aita Aranari bisita egitera joatea eta haren bila Goiurin izatea. Hau ordea D, Balbinorekin " Arkandiako zubi ta Goixaripetik San Martin ermita Ametzaundikora ta handik Yurretara" joana zen arratsaldean eta elkar topatu ez.*

*Atzera Bilbora joan omen zen Don Resurreccion 7,15etako trenean.....(240-241 orriak).....Loiolatik itzuli ondoren ez dugu Sabino Aranaren albisterik. Ez dakigu Bilbora itzuli den ala Durangon gelditu; 26an, hirugarrenean bai: berriro azaltzen dela D, Carlos Oruerekin. Hurrengo egunean ere gauza bera."On Balbino ta Sabino Arana amarekin Tabiran" izan zirela... Igandean, 28an, Aita Aranak ematen du meza.... Orain arte gutxitan egon dira elkarrekin Aita Arana eta Sabino Arana. Behin bakarrik, agian.... Astelehenean, haatik, Iurretako festegunean, "atsaldean San Rokera On Balbino ta Sabino Aranakin"...(268-269 orriak, IKER-12 aita Aranaren egunaria) lokarri, euskalarien arteko kordela dugu Arana azkoitiarra. Zeinek ukatu Sabino Aranaren eragina abertzaletasunean, euskaltzaletasunean! Berak euskera ikasi eta suspertu zuen, neologismoak sortu, asmorik onenaz, baina Ijorretara San Migel jaietan egindako osteratxoan dantzariak ikusi zituen eta gustatu, hobe ez! Eusko Abendaren Ereserkija-ren oinarria gure Dantzari-dantzaren haserako Agintariena martxan dago, gerora Eusko Alderdi Jeltzalearen eraginez zazpi euskal herrietara hedatuko dena.*

Ikastetxea txiki, edo lehendik zeukaten etxe handia txikia da ikastetxe erabilerarako eta berri bat, gaur ezagutzen dugun hau eraikitzen dute. Geroago josulagunen Aita Nagusi izango den Pedro Arrupe-ren aita ta Manuel Smith arkitektoak izango dira eraikinaren diseinatzaile eta Zornotzako Goiria kontratista. Sasoi hartako arkitektoak puntarengoak ditugu hauek eta berriz ere jesuitak gauzak ondo egitearen aldekoak eta betirako balira lez. XX. Mendearen hastapeneko obra dugu hau.

Ikasleak, zein motako ikasleak ditugu bertan? Ez durangarrentzat bakarrik, kanpoko mutilak ere hartzen ditu, barnetegian "internoak" eta "humanidades" eskaintzeaz gain seminario txiki bezela ere jarduten da ikastetxe honetan. Hemen ikasitako hainbat eta hainbat gure herrietako parroko, abade laguntzaile, musiko, sermolari, idazle... euskaltzale, dotrinaren transmisioa eginez, baina euskeraz, baseritarren autoestima

goratu guran teknika berriak erakutsiaz, bederatziurren eta bezperen artean baserri sindikatu, kooperatibak sortu, bultzatu... hemen ikasle izandakoak horren buru ditugu.

Euskaltzaindiaren eskutik "LENENGO EUSKALEGUNETAKO ITZALDIAK" eratzen dira Durangon, 1921.ean ...*antxe, Tabira zarrean... izan ditugu garoilaren 4-8 bitartean lenengo euskal-egunak. ... Erriaren pozgarritza Zuberotik dantzari zankarin, ats-luze, soineko bitxidun-talde bat ekarrarazi degu. ... Erri yakintza-zaleari amaika aldiz itz egin diote gizon trebe, erne, argitsuak: batek elizan, bik Jesuitegian, besteak udaletxean...*

#### EDIRENGUA

*Elorza Jaunaren itzaldia*

*Zabala aba ta euskereazko bere lanak.- Eguskitzak*

*Eusko olerkitzaz.- Ormaetxeak*

*Eusko olerki neurritzaz.- Ormaetxeak*

*Itzaldi bat.- Manterola'tar Gabirelek*

*Atzerriko euskalriez.- Lakonbek*

*Euskalerriko tregu-arriak.- T. Arantzadik*

*Eusk- mitologia.- J.M. Barandianek*

*Euskerazko eskolak.- Belaustegigoitia'tar Perderikak*

*Eleiz-itzaldia.- Eguskitzak*

*Amaia.- R.M. Azkuek*

#### EUSKO OLERKITZAZ

*Ormaetxea'tar Nikolas Aitak*

.....nonbaiteko euskaldun herrilari batek, egundano, ergelkerii edo eztakit-zerkerii esan omen-du. ¿zer gero? Oraingo asmaketarako ez dela gai gure izkuntza, oso zarra dela zarrerii, aspaldikoa dela. ¿Zein ote dugu gizon yakintsu ori? Etorri akitt: zarra duk euskera, ala duk, aspaldikoa duk; bañon ez duk zartu, ez zimeldu, ez igartu, ez amaundu. Gaur erakutsiko diat egiñaleen, gure izkuntza leuna dela, eze dagola, sasi-

*yakintzu orrek uste baño geiagorako gai dittekela.* N.Ormaetxea S.J. sinaturik. Nik neure laburrean honetara sinaturik eza gutzen ditudan bakanak. Zer nahiago zukeen Orixek josulagun, jesuita Aita izatea baino! Horren arranguraz bizi eta hil zen Orixe.

Hasieran abestu dizuedan bertsoa Orixe berorena da. *EUSKALDUNAK* Poema ederrari horrela eman zion hasera. Iturri zaharretik ur berria edanez. Jesuitek noviziaduan eta junioraduan latin eta gerkera ikasi eta kultura horietaz jantzeko ahalegin berezia egin ohi zuten. Horrela Homeroren Iliasena eta Odiseo edo Bergiliren Eneida kantu epikoen haserako bertsoetan Musei laguntza eskea agiri da kantu eder, on bat osotzeko. Halatsu Orixek “zatozkida goi arnas egin nerekin lan” erregutzerakoan Homeroren eskariak euskeraz jarri ditu.

Urteotan Durango izan dugu, aurton bere jaiotzaren mendeurrena betetzen den Esteban Urkiaga Basaraz, Lauaxeta. Lauaxeta, Jokin Zaitegirekin batera eta Andima Ibiñagabeitia handia. Ha zein triunviratoa! Nire gogoa bata zein bestearengana doa. Euskeraren ekintzaile, euskeraren militante bata zein bestea. Bizia euskerari, euskerarentzat, gure hizkuntza sukalde girotik jakintzaren goi gailurrera jaso guran eskainia. Klasikoetan jantziak eurok, jesuiteman nor ez! Munduko beste hizkuntzen parera jaso nahian eta besteena gureganatzen jardundakoa. Zaitegi Platonen eta Greziako filosofia klasikoa guregana hurreratu nahietan, Andima Bergilio edo Botanika gaurkotua gu tarteratuz eta Lauaxetaren olerki erromantikoa eta azken orduko ilaginean idatziriko hunkigarri hau:

#### AZKEN OYUA

*Zuibillaga'tar Karla'ri*

*Goiz eder onetan erail bear nabe  
txindor baten txintak gozotan naukela?  
El naiten leyora begiok intz-gabe!*

*Gorbei-barna yatort kañoi-ots itzela:  
 or egazkin-egak odei-lapur doaz.  
 Guda-gotzon baltzak odolez dakustaz,  
 euren oin aurrean berdin gudari.  
 Gaste argi orreik, eutsi lur amari!  
 bera baizen onik eztauko ludiak,*

*Baña, Jaun altsua, orain ken nai nozu?  
 Bildots baten antzez lotuta naukozu  
 bearren nauanean neure Aberriak?  
 Aren deia dantzut arma-ots larrian.  
 Izkillu-tarteko dirdira bizian  
 mendi goitietan Eriotz betorkit.  
 Bertan eder dira azkeneko atsak!  
 Arte adartsu babes toki bekit,  
 neure gezi meion eriotz-zauria  
 txastau dagientzat etsaien errañak!  
 Zuzentzaren maitez bil diran semeekin  
 ixuri daidala bizitz iturria.  
 Lurra estal bedi odol larrosakin!  
 Gozo eta eder gizonen kopetan  
 aberri-opazko eriotz mosuak!  
 Zauritu orreik zut, orra mendietan  
 aintzak zabal ditu esku argituak,  
 ortxe jausi nedin!*

*Eta azken orduan  
 laztandu naiela arnasa estuan  
 garaitz abar billa doazen zaldiak.  
 Eta begi onein laño leyartuan  
 tinki igaro beitez gizuren argiak;  
 esku zurbil oneik aul luzatu bediz  
 eutsi zagientzat ikurrin donea.  
 Azkatasun ateak betiko bil zagiz!  
 Antxe makur zaite, oi buru neurea,*

*geure lur amaren besarte gozoan!  
Eta anai maiteak, eutsi burrukari  
iñoiz ilgo eztan euzkoen Amari.  
Itxaropen auxe sort bekit gogoan.*

*Jauna, eriotz au arren emostazu,  
koldarrentzat itxi larrosen usaña.  
Azkatasun deuna bial egistazu,  
atzindu nai dot ba arrotzen iraña,  
gorputz onek bakez atsedan dagian  
erri azkatuen Egun Aundi arte!  
Gudan jaus nadilla zuzentzaren alde,  
ez ormari atzez goiz eder argian.*

*Eta bake deuna sortuko denean  
neure azur utsak besteenekin batu;  
eresi Gurenaz lagundu bidean  
obi bakar-arte.*

*Baña, arren, bukatu  
oroigallu aren maitasun itzala  
Kistoren gurutzaz; Beragan ditxarot.  
Josu'ren fedea besterik eztaukot!  
Erri zintzo-onenak zaindu dagiala  
il gintzanen atsa, il gintzanen ala.*

(GAIK Revista de Ciencia y Cultura  
Director: Leopoldo Zugaza  
Verano 1977 numero 4, pág. 627-628)

Lauaxeta 1937.ko ekainean fusilatu zuten baina urte bete lehenago lehertu zen 1936.ko uztailan anaia arteko guda zekena. Durangoko jesuitetan ikasle izandako batzuk baditugu protagonista. Lauzurika Gotzaina eta Alberto Onaindia-Aita Olaso. Zornotzako karmeldarrek argitaratzen zuten "Jaungoiti-



ko Zale”n Don Javier Obispo izendatu zutenean zutabetxo txalogarri bat eskaini zioten hizlari bikain, euskaldun jator eta jakintsu lez goraipatuz, kargu hori hartu arren bere euskera txukun eta ederrean idatziz jarrai zezala erregutuz. Gotzain turdun edo mitradun Durangon ordenatu zen, Andre Marian, eta jesuitetan ikasia zenez badira argazkiak, Artzepiskopu, apaiz, herriko agintari eta abarrekin jesuitetan bertan ateratakoak.

Bada, 1936.ko urrian Aitzol abadea, On Zelestino Onaindia, hemengo ikasle izana, Martin Lekuona –On Manuel Lekuona-ren anaia, Amallon Sagarna abade egin berria eta beste abade batzuk “Viva Cristo Rey”ren izenean erailak izan ziren, baina honatx Alberto Onaindia, Valladolidko Kanonigoak zelan kontatzen digun:

#### EL OBISPO FRANCISCO JAVIER LAUZIRICA

*...volvamos a los primeros días de septiembre de 1936. Todos los veranos llegaba a Durango para pasar las vacaciones con sus familiares el obispo auxiliar de Valencia, Dr. Francisco Javier Lauzirica Torralba; residía en la casa próxima al convento de Santa Susana. Era natural de Yurreta, pero toda su vida la pasó considerándose durangués- D. Javier y yo nos conocíamos desde varios años. Algunos veranos pasó una temporada en mi propio pueblo natal, en Marquina. En septiembre de 1930, al cumplirse los 50 años de la fundación del colegio de los PP. Jesuitas de Durango, del que ambos éramos antiguos alumnos, se organizó un programa de solemnidades, y Lauzirica predicó en la misa mayor celebrada por mí. En aquella fecha, los dos éramos canónigos, él de Valencia y yo de Valladolid.....Bilboko Institutuan ikasleei esandakakak: "En la Iglesia Española y en la Patria, deben concentrarse todos los amores. Cuando se dice España, yo digo Iglesia. En el amor hacia la Patria residen todos los sentimientos de amor hacia la Iglesia. Amar a España, es amar lo más grande, lo más sublime, menospreciarlo equivale a despreciar*

*lo más sagrado. Quien ame de verdad a España y su Iglesia ése obtendrá recompensa en la tierra y en el cielo. Escolares: amad a España y amaréis a Dios y España os llenará de felicidad aquí en la tierra y Nuestro Señor os colmará de gloria en el Reino de los Cielos.*

Obras Completas de Alberto de Onaindia pág.44 eta hurrengoak.

Nafarroan sartzeaz bat, bere eliz artzain, gotzain zeregine-tan ekingo dio baina begira On Marino Ayerrak, Altsasuko parrokoak nola deskribatzen digun bere *"MALDITOS SEAIS, NO ME AVERGONCÉ DEL EVANGELIO"* Marino Ayerra Redin 257-258 or.

*...Gran acontecimiento en mi parroquia! La visita pastoral del Obispo. Se me anuncia que Monseñor Don Marcelino Olaechea, Obispo de la diócesis, delega en Monseñor Lauzurica, Obispo Auxiliar de Valencia, refugiado en Pamplona, para cursar la visita pastoral y administrar el Sacramento de la Confirmación en su nombre, y que con tal motivo vendrá Monseñor Lauzurica a pasar conmigo, en mi casa parroquial, unos tres o cuatro días, para, desde aquí como centro de operaciones, cursar la visita pastoral a los pueblos circunvecinos.*

*Alto honor para mí, y... ¡menudo jaleo para mi madre y hermana! Menos mal que el tal Monseñor Lauzurica –grandote, gordote, campechanote y brutote-, resultó ser muy sencillote. Con que le pusiéramos delante cinco o seis platos succulentos, nutritivos y fuertes, y algunas pequeñeces y menudencias de entremeses variados y postres diversos, un buen café, vinos, licores, etc., etc., tenía bastante. No pedía más hasta la hora de cenar, en que entonces ya, comer no comía; entonces cenaba.*

*Hubo que movilizar todo un cuerpo de cocineras auxiliares. Pero la verdad es que merecía la pena. Daba gusto verlo comer.*

*Elogiaba, saboreaba, repetía, volvía a elogiar. Hasta en Pamplona, sé que, refiriéndose a mí, hizo el mayor elogio que de su boca podía esperarse: “¡ es un buen anfitrión, Don Marino!”*

*Le sorprendió también mi biblioteca particular, sobre la que echó a distancia un gran vistazo a vuelo de pájaro. De libros parece que andaba un poco más inapetente. No recuerdo que abriera ninguno. Claro que, todo aquello lo sabía él ya de sobra. Y el estudiar o leer no es tampoco como el comer o cenar, que para nuestra humillación... y placer, hay que hacerlo todos los días.*

*Después he sabido que, puesto al frente de la diócesis de Vitoria, en ausencia y destierro de Monseñor Don Mateo Mújica y Urrestarazu – el que me ordenó a mí sacerdote, por cierto, - se ha conducido y portado como un verdadero jumento... .*

*Homines et jumenta salvabis, Salmo XXXV, 7”*

Bere izentazioaz baliaturik nahiko astakume ibilera izan zuen. Adibidez Begoñako basilikan Bilboko, Bizkaiko hainbat bikote ezkondu ei zituen, gerra irabazleak, familia oneko(?) aberats, katoliko, espainol... bada, Monseñor Lauzurikak ezkontzaren sakramentuz baturiko hauek arazoak eduki zituzten gerora. Ezkontza agiririk ez zen inon agiri. Kristo Erregeri eta Francori didar batzuk bai baina ezkon agiririk eman ez. Ahaztu, eta Don eta Doña hauek paperak falta. Libro de Familia falta zeren hau elizkizunaren ostean eskuratzen zen. Kosta omen zen konpontzea eta eguneratzea. Datu hau Martínez de Lejarza, S.J. josulagunari zor diot, berau Dalmazio Langarikak zuzentzen KAS txirrindulari taldearen *director espiritual*a zen.

Lauzurika gotzaina ere gizakiok bizi dugun dualitate horretan dantzatu zen. “ Jaungoiko Zale”n euskaltzaletzat eduki bazuten ere orban hori kendu zuen. Abade, fraide euskaltzale abertzaleak, adinari begiratzeke, desterrura, Españako erbestera edo kartzeletara bialdu zituen. Erruki barik! Hala ere,

ez denak. Don Javier Comillasen ikasia zen, jesuitekin, eta Comillasen ibilitako ez denak baina bai gehienak habilitatu zituen gure herrietako parroketan. On Klaudio Gallastegi, San Antongo erretore ospetsua lekuko. Hau ere Durangon ikasle izandakoa.

Carmonan, Dueson, eta Batallón de Trabajadoresetan josulagunik ez zaigu ageri. Gerra ostean aldiz berriz ere jesuitak lehen ilaran. Gose urteak, zigor urteak, mespretxu urteak baina sute hautsetik lama berria pizten den eran Andre Mariako be-deratziurrenean sermolari Jose Ramon Alberdi S.J. Aitak argiro azaldu zituen, non eta Durangon, Don Esteban Bilbao eta bere senitarte osoaren Durango espainolean, argiro ahots goran kantatu zuen justizia eta bakea, neba arriben arteko ikusi ezina, kristauen fariseismoa, ... meza amaitu zenerako poliziak atean eta albatetik ihes eginaz erbesteko bidea hartu zuen. Josulagunen zuhurtzia!

“Gauak goiz alba duela ondoko lagun oroit hadi...” halatsu gerrak gerra berriz ere Durangoko San Jose ikastetxeak ateak irekitzen dizkie handik eta hemendik datozen ikasleei. Hemen aipatu beharra dut, esan beharra eta salatu beharra gure artean maiz erabili ohi den esaldi bat, ozpinez eta arantza zorrotz gisan ohi dena: *escuela de élite, colegio de pago*...halango zama ezkor eta astun bat emanez hitzoi. Durangoko San Jose ikastetxera Ermodoko mutilak edo Zeanuritik, Abadiñotik, Azpeititik, Elgoibartik edo Garaitik datozen mutilak denak, guztiok ote dira familia “oneko”, sendi aberatseko semeak? Bai ote? Bigarren semea, laugarrena, zortzigarrena eta lehenengoa jesuitetara jakintzan janztera bidaltzea diruaren erabilera arinagatik ote zen, ote da? Ala sarri baino sarriago gurasoek euron ahorako zeukaten, ondo irabazia zeukaten ogi kuxkur gogorrari ere uko ez ote diote egin seme alabei etorkizun hobea eskaini nahian!

*Cara sol, Prietas las filas, cruzadoak eta Te Deum* kantuak...gerra osteko gidoi ankerrak hala eta hau eskatzen du

baina ilun horretako bidexka zidorretan arestian aitaturiko ariadna kordela ez da eten eta belaunaldi berri hauetatik loraldi geldi ezin eta oparoa abiatuko da Durangoko josulagunen geletatik.

Izen handien artean, Lauaxeta, Zaitegirekin bateratsu Gaizka Barandiaran aitatu nahi nuke. Arrasatear hau 28-32ean ikasle izan ondoren 45-46 urteetan maisu lez jardungo da hemen. Folklorista, Iliasena itzuli eta argitaratu zuen, -gipuzkera narraiztaile bezala erabiliz, helenoak bizkaieraz mintzo dira eta tro-yarrak aldiz lapurteraz- oraintsu Zuhaitz gurgarriak Israelen eta Zuhaitz gurgarriak Egypton lanen egile. Euskaltzale eta dantzazale aparta, gure Dantzari-dantza eta Erregelak ondo ezagutzen dituen berau.

*“El Aletí cuando era vasco  
Todos le tenían asco  
Y ahora que es campeón  
Todos le piden perdón”*

Billbainada hau gure arteko azterketatxo hona ekartzeari fri-boloa dirudike baina 1958an Chamartinen R. Madrili kopa irabazitakoan Eneko Arietak Piru Gaintza, kapitaina, hanka-urkulu lepo gainean jaso zuenean zenbat eta zenbat euskaltzaleren paparretan zegoen antsia itolarria ez zen bihurtu erneguzko, bozkariozko txilio, garraxi hautsia! Debekuaren kontrako ate irekitze bat, leihatilatik haize berri baten esperantza! Bada, “el torito durangués” hau, Eneko Arieta-araunabeña jesuitetan ibilitakoa zen.

60.hamarkada hasieratik aurrera azaleratuko dira gerra osteko gerriko estuaren emaitzak. Urepeleko Xalbador bertsolari handiari 1967.ko txapelketan bertsozale euskaldunek txistuak jo zizkioten. Bertsozale ta euskaldunak! Dirudienez Nafarroa beheko euskara Xalbadorren kantuan ulertu ez eta txistuak! Adibide hau ekarri dut zeren 1962an Zuberoako Pastüala ekarri eta antzezteko asmoa laguntza ezagatik zapuztu zen. Hori

ausardia, hori! Leopoldo Zugaza, Jesus Astigarraga eta lagunena. Zuberotarrez Durangon! Hazia ereinda zegoen jadanik eta lasterrera Gerediaga Elkartea eta Euskal Liburu eta Diska Azoka sortu ziren Leopoldo jesuitetako ikasle ohia proiektu honen buru zela eta Luis Mari -Koldo- Altzibar Arrinda lagun besteak beste, gerora ikastetxe honetako zuzendari eta egun Loiolan bizi den Trañako semea.

Eliza katolikoak bere kontzilio ekumenikoa egina du. Hizkuntza vernakuluak aintzakotzat hartzen dira. Durangon, karlisten herri honetan euskerak bidea urratzea ez du errez. Oztopoak nagusi Andre Maria eta Santa Anako parroketan. Josulagunak berriz ere zuhur. Domeketako 12:30tako meza euskeraz Aita Zabaleta eta Aita Bereziartuaren eskutik. Meza entzule horien artetik, jesuitetako meza entzule horien artetik sortuko da "Aurtxoa- Kurutziaga Ikastola". Meza, ikastola, Edili... mugimendu honetan txertatzekoa da Jesus Atxa, gerra aurreko ikasle ohia, Bizkaiko ikastolen sorburuan eta gerora Iruñean eta Nafarroan eragile izan duguna.

Zerbait lehentxoago Iñaki Goikoetxea S.J., zeaniztarra, eskola-orduz kanpo multikopistaz ereindako euskerazko klaseak ematen ditu. Errekasto hau uholde bihurtuz doa. Eguerdiko bazkaloste ordutxoan Andre Mariako kanpaitorrearen magalean Aromatarrak, Joan Antonio eta Amaia txistu hotsean. Eurok ikasten, euskal kontzientziaren pizgarri. 60.urteetan halako eta besteren ahoan txistu eta tanboliña instrumentu kuasiklandestinoak ditugu. Baditugu, zelan ez! El Correo español eta La Gaceta del Norte, baina Joan Antonio Aromak "Zeruko Argian", euskeraz noski! Eskainiko dizkigu hemengo berriak eta kronikak.

Ateak, leihoak irekitzera doaz. Bihotz barrenean eutsitako, birikietako hauspoaren eusle izandako hori kanporatu beharra dago. Euskerazko Alfabetatze kanpainak hasten dira, Zeruko Argiako Rikardo Arregiren-eta eraginez eta hemen jesuitetako ateak zabaltzen hasten dira, gau eskolak martxan dagoz. Izen

asko, baina Joan Antonio Aroma eta Juan Luis Isasi aipaturik argazki horretan kolokatu eta ikus zaitezte enparauok.

Hemen ikasle izandako hainbaten eragina ikusten hasten gara euskaltzaleok. Batzuen eragin zuzena, Joan Bixente Gallastegik eta Jesus Garitaonandiak gotzaindegiko agiriak, domeketan eleizetan irakurri behar direnak, euskera txukun, errez eta era berean jasoan jartzen ahaleginduko dira. Patxi Altunak, hemen ikasle izandakoak, gaur euskaltzaina, 67an "Euskera hire laguna" metodoa kaleratu zuen. Inazio Arregi, Loiola eta Donostia Herri Irratian aritu ondoren Vaticanoko Irratian diharduena. Simon Odrizola, ikasle eta irakasle urte luzeetan hemen jardundakoa. Julen Lizundia, jesuita ohia, Durangon ikasitakoa, Mensajero-Gero eta Erein euskal argitaletxeen sortzailea. Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia karrera sortu, bultzatu eta arima izan eta dugun Elgoibartarra Gotzon Garate neka ezina eta bere herbak erabiliz: *"hemen Durangoko jesuitetan euskaltzaletu eta abertzaletu nintzen ni."* Axpeko Manu Ertzillak eta Ijorretako Joseba Sarrionandiak *Pott Bandan* hasi eta gerora izan dute eraginik euskal letretan, ez? Edo Xeberrik eta Gontzal Mendibilek!

Euskal kultura defintizerakoan mugak jartzea ez dirudi lan erreza denik eta bateon batek panfletario usaina dariola uste izan arren 1976.ean "Askatasunaren aldeko ibilaldia" iritsten da Durangon jesuitetako patiora eta hara non agertzen diren Telesforo Monzon ETako kide diren erbesteratu batzuekin. Aletiak irabazteak zenbait sentimendu euskaldun aireratzen badu, herri ideologiaz nahasian dagoen erlijioa, ez-erlijioa, marxismoa, euskera, zertarako euskera, autogestioa, burgesia, langilea, errittoa, mitoa, totum revolutum horretan ezterrira datozen oihero oro ito behar al dira berriz ere! Durangon jesuiten ateak, -klasista, curas retrogrados, colegio privado ozipindua- jesuiten ateak bakarrik izan dira zabalik!

Eta zabalik jarraitzen dute. Euskeraren irakaskuntza ikastolen esparrutik beste ikastetxeetara jauzi egiteko garaian urratsez urrats, pausoz pauso ateak zabaldu dizkiote.

Izen asko utzi ditut kolkoan. Argitara ekarri ez ditudanak luzeraren luzeraz ezin izan ditut aitatu eta batez ere nire ez-jakinari egotzi behar zaio akats hori. Zuetariko bakoitzak asko osotuko luke historiatxo hau eta ni prest nauzue jasotzeko, zuekin batera aberastuko nintzateke-eta.

Hala ere, Teseoren gisan Zezentauroaren labiryntoan barrena ibili izan naiz eta ez dakit ba! Durangoko Jesuiten artean 125 urtean euskeraren hari bat badela erakusteko gai izan naitzaizuen.

Durangon, 2005-12-10

*Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa.*

XL. Euskal Liburu eta Disko Azokaren egunetan.